2001.enean BreakOnStage jaialdia jaio zen, kale kultura espresioen erakuslehio izateko asmoz. Lehenengo edizioa egin zenetik hamar urte igaro dira. Egun nazioarteko aretoko kale kultura jaialdi garrantzitsuenetakoa da.

BreakOnStage jaialdiaren hamargarren edizioa Bilboko Kasilla Kirol Gunean ospatuko da Apirilaren 9an. Aurtengoa erakargarriena eta ikusgarriena izango da; mundu mailako kale kultura erakustaldia. Lau atal izango ditu aurtengo jaialdiak:

- Munduko breakdance azken lehiaketako irabazleak, **Jinjo Crew** taldeak ikuskizuna estreinatuko du.
- 10. **Aretoko Breakdance Lehiaketa-**n bost taldek parte hartuko dute.
- **Kale Kulturen erakustaldia**; Beat-Box, Popping, Locking...
- Kontzertua **Foreign Beggars** Hip-Hop taldearen eskutik

BreakOnStage jaialdia hiru orduko iraupena duen ikuskizuna da. Urtero agortzen dira sarrerak. Sarrerak sagai daude jada. Aurrez erosi ezkero 10€tan (8€ bbk26 txartelarekin) eta takilan 12€. Sarrerak kutxazain automatikoetan, interneten eta ohiko salmenta puntuetan erosi daitezke.

Info+: www.breakonstage.com

ARETOKO 10. BREAKDANCE LEHIAKETA

Jinjo Crew (Seul)

Mundu mailako break talderik berritzaileena da. Mugimendu akrobatiko bikainak eta sinkronizazio maila altua erakusten dute beraien koreografia originaletan. 2010.eko Munduko Break Lehiaketa irabazi dute.

BreakOnsStage lehiaketan parte hartzeaz gain beraien azken ikuskizuna ere bertan estreinatuko dute.

De Klan (Erroma)

Koreografia honekin sari mordoska irabazi dute nazioarteko lehiaketa ospetsuenetan. Umorea eta break mugimeduak konbinatzen dituzte Mario Bros pertsonaia ezaguna parodiatuz.

La Smala (Bordeux)

La Smala Frantzia ordezkatzen du nazioarteko lehiaketetan. Talde trebe hau etengabeko eboluzioan dago. BreakOnStage 2011 jaialdian show berria aurkezten dute.

Crazy Hospital (Bilbo)

Azken bost urteetan eduki duten garapenaren testigu izan gara. Heldutasunera iritsi dira break talde moduan. Eszenaratze harrigarria mugimendu akrobatikoekin konbinatzen dute.

Rugged Solutions (Eindhoven)

Holandako break talderik onena da. Belaunaldi ezberdinetako dantzariek parte hartzen dute. Ikuslea harritzeko gaitasun handia dute beraien mugimendu indartsuei esker.

Epaimahaia ondorengo adituek osatzen dute:

- **Extremo** (Zaragoza): Nazioarteko Breakdance lehiaketa garrantzitsuenetan parte hartzen duen Bboy ezaguna.
- **Renegade** (London): Europako Hip Hop kulturaren ikonoa da. Break lehiaketetan ohiko artista gonbidatua.
- **Vento** (Salamanca): “Supersouthnics” break taldearen kidea, aretoko breakdance modalitatean espezialista. “Circle Du Soleil” konpainiaren ekoizpenetan parte hartu du.

KALE KULTUREN ERAKUSTALDIAK

“4x Sampler Beatbox Crew”(Berlin)

Ahoarekin soilik instrumentu eta efektu mordoa sortzen dituzte, emanaldi harrigarri eta dibertigarriak eskainiz. “Mando” taldekidea munduko Beat Box txapelduna izan da birritan.

Breathles (Iruña)
Street dance

Iruñako neska boskoteak osatzen du taldea. Kale dantza modalitate ezberdinak lantzen dituzte, hala nola, mugimendu errobotikoetan oinarritzen den Street Dance-a.

Rae & Flockey (Dusseldorf)
Locking

“UKchampionship“ irabazi berri dute, bikotekako Locking lehiaketa garrantzitsuena. Artikulazioak blokeatzen dituzte, une labur batez, ondoren dantzan azkar jarraitzeko, hauxe da Locking estiloaren funtsa.

Extremo & Vento (Zaragoza/Salamanka)

Aurtengo Aretoko Break Lehiaketako epaimahaia osatzen dute. Gainera show berezia prestatu dute.

DJ Renegade (London)
Freestyle edo dantza askearen gunea girotuko du.

80.hamarkadan hasi zen biniloekin musika sortzen. Scratch Perverts kolektibo ezagunaren sortzailea da. Europako Hip Hop kulturaren ikonoa da. Break lehiaketetan ohiko artista gonbidatua.

Sevemji (Bilbo)
Hiphop, House & Popping.

Sevemji taldea Marijose Bayón eta Eva Vallejo bilbotar dantzari/koreografoek osatzen dute. Dantza eta antzerkiaren munduan esperientzia zabala dute. Kale dantzen disziplina ezberdinak indar handiz transmititzen dituzte.

VJ Logela Multimedia (Elorrio)
Video Jockey & escenografia

Bi artista grafikok eta bi musikarik osatzen dute multimedia talde hau. BreakOnStage2011 jaialdiren publizitate kanpaina eta eszenografia egin dute.

KONTZERTUA Foreign Beggars (London)

Beraien soinu berritzaileari esker europear hip hop erreferente bihurtzen ari da. Rap musikatik jazz edota grime estiloetaraino mugitzen dakien hirukote paregabea da. Foreign Beggars taldea zuzeneko indartsuak eskaintzeagatik da ezagun. “Contact” single-a, interneteko bideoklip alternatibo ikusienetakoa da.